

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
		Azken data	Δ Urte artean (%) *aurreko aldia	Azken data
- Guztira, 21.186 langabe erregistratu dira urtarrilean. - Afiliatutako biztanleen kopuruak -% 1,3 egin du behera abenduarekin alderatuta, baina 2.482 enplegu gehiago daude urtebetea (% 1,3). Erregistratutako kontratuak -% 5,8 egin dute behera 2025eko urtarrilari dagokionez. - Txikizkako merkataritzako salmentek % 2,6 egin dute gora laugarren hiruilekoan, eta urte osoan % 2,9. Saltoki handietan eta elikadura-kateetan urte arteko igoera % 2,4koa izan da. Bestalde, Zerbitzuetako salmentek % 1,4 egin dute gora urterik urte. - Urtarrilean bidaiarien sarrerak eta gaudiak igo egin dira hiriko ostatueta. Batez besteko egonaldia mantendu egin da. - Bilboko aireportuak 415.349 bidaiari erregistratu ditu urtarrilean, 2025eko urtarrilean baino % 13,5 gehiago. - Bilboko Portuan 2,2 milioi tonako trafikoa erregistratu da urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino -% 9,4 gutxiago.	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	199.296	-1,3*	urt.
	Erregistratutako langabeak (kop.)	21.186	1,5*	urt.
	Erregistratutako kontratuak	10.530	-5,8	urt.
	Merkataritza			
	Comercio minorista: índice de ventas (año 2021=base 100)	126,2	2,6	4T2025
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	105,8	2,4	urt.
	Turismoa (hotelak eta apartamentuak)			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	79.121	7,3	urt.
	Ostatu-gauak (kop.)	151.858	11,2	urt.
	Ekonomia eta enpresak			
	Zerbitzuak: salmenta-indizea (2021 urtea= 100 oinarria)	135,5	1,4	4T2025
	Garraioa			
	Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	415.349	13,5	urt.
	Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	2,2	-9,4	urt.

DATU BAT

% **2,6**

Txikizkako merkataritza-salmentak

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Urtarrilean 310 langabe gehiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko % 1,5 gehiago, eta 21.186 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa igo egin da gizonen eta emakumeen artean, % 0,1 eta % 2,6, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 8 gizon langabe eta 302 emakumezko langabe zeuden.

Langabeziak gora egin du adin-talde guztietan. 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean igo da gehien ehunekoa (% 2,9 eta 53 langabe gehiago). 25-44 urteko segmentuan % 1,4 egin du gora (104), eta 45 urte eta gehiagokoan 153 langabe daude (% 1,3).

Sektoreka, Zerbitzuetan 318 langabe gehiago daude (% 2,2), Lehen sektorean 2 (% 0,5) eta Eraikuntzan 5 (% 0,4). Industrian bakarrik jaitsi da erregistratutako langabezia (-% 0,9 eta 13 langabe gutxiago). Jaitsi egin dira lehen lanaren bila dabiltzanak (-% 0,1 eta 2 pertsona gutxiago).

Benchmarking-a. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak % 1,3 egin du gora aurreko hilaren aldean. Zaragozak izan du igoerarik handiena: % 2,5.

Euskal hiriburu multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa % 1,2koa izan da. Gasteizen % 1,3 hazi da, Donostian % 1,1 eta Iruñean % 1,0.

Langabeziak gora egin du EAEn (% 0,7). Lurraldeka: Bizkaian eta Araban % 0,7 egin du gora eta Gipuzkoan -% 0,6 behera.

Afiliatuak

Bilboko enpresetan 199.296 afiliatu zeuden urtarilaren amaieran, hau da, -% 1,3ko jaitsiera izan zen eta 2.586 enplegu gutxitu ziren abenduarekin alderatuta.

Araubide guztiek egin dute behera: Orokorrak 2.449 enplegu galdu ditu aurreko hilaren aldean (-% 1,4), eta Autonomoen Araubide Bereziak 86 afiliazio galdu ditu (-% 0,4); Etxeko Langileenak 45 enplegu gutxiago ditu (-% 0,7) eta Araubide Bereziak (Nekazaritzakoa eta Itsasokoa) sei afiliatu gutxiago.

Lehen sektoreak izan ezik (6 afiliatu gehiago eta +% 2,6ko igoera), gainerako sektore guztiek behera egin dute: Zerbitzuek 2.373 afiliatu (-% 1,3), Eraikuntzak 155 (-% 1,7) eta Industriak 64 (-% 0,8).

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Urtarrila	21.186 pertsona
	% 1,5 ▲
Emakumeak	% 2,6 ▲
Gizonak	% 0,1 ▲

Benchmarking-a

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 1,5 ▲
G-5	% 1,3 ▲
G-3	% 1,2 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Urtarrila	199.296 pertsona
	% 1,3 ▼
Araubide orokorra	% 1,4 ▼
Autonomoak	% 0,4 ▼
Etxeko langileak	% 0,7 ▼
Bestelakoak	% 0,9 ▼

Zerbitzuetan, datu absolutuetan, Osasunaren, Administrazio-jardueren eta Gizarte-zerbitzuen adarretako jaitsierak nabarmentzen dira, besteak beste (-1.003, -775 eta -701, hurrenez hurren). Igoerak, bestalde, arlo hauetan izan dira: Hezkuntza, Higiezinaren jarduerak eta Eraikuntza-laguntzailea (549, 421 eta 292 gehiago, hurrenez hurren).

Oharra: EJSN-2009 ordez EJSN-2025 jarri denez, aldaketa horrekin jarduera batzuen sailkapena aldatu egin da, eta horrek esan nahi du ezin direla alderatu aurreko kodetzearekin.

Benchmarking-a. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak -% 0,5eko jaitsiera izan du aurreko hilaren aldean. Bartzelonak izan ezik (% 0,1eko igoera), multzoko gainerako hiriburuetan jaitsierak izan dira: Sevillak izan du atzerakadarik handiena (-% 1,0) eta Zaragozak txikiena (-% 0,1).

G-3ko hiriburuaren taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, mantendu egin da. Behera egin du Donostian (-% 0,8) eta Gasteizen (-% 0,3). Iruñean soilik egin du gora (+% 1,2).

EAEn, oro har, afiliatuak -% 0,5 jaitsi dira hilabete artean. Lurraldeei dagokienez, denetan egin du behera afiliazioak. Araban -% 0,1, Gipuzkoan -% 0,5 eta Bizkaian -% 0,7.

Erregistratutako kontratuak

Urtarrilean 10.530 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, urtetik urtera -% 5,8 eta 646 kontratu gutxiago. Urtetik urtera behera egin dute gizonei eta emakumei egindako kontratuak: 400 eta 246 gutxiago, hurrenez hurren.

Gazteenei egindako kontratuak jaitsi dira, -% 10,2, hau da, 263 kontratu gutxiago, eta 25-44 urte artekoiei egindakoak, -% 9,6 (534 gutxiago). Hala, 45 urtetik gorakoien artean baino ez dira igo, % 5,0 (151 gehiago). Erregistratutako kontratuen % 47,9 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.045 kontratu), % 21,9 berriz, gazteenei (2.303) eta gainerako % 30,2a, berriz, 45 urte eta gehiagokoei (3.182).

Sektoreka, kontratuak jaitsi egin dira Zerbitzuetan (-% 5,9 eta 600 kontratu gutxiago), Industrian (-% 9,9 eta 55 gutxiago) eta Lehen sektorean (-% 40,0 eta 2 gutxiago). Eraikuntzan soilik igo dira (% 2,9 eta 11 gehiago). Zerbitzuetan, beherakadarik handienak Osasun-jardueretan eta gizarte-zerbitzuetan (358 gutxiago) eta Hezkuntzan (160 gutxiago) izan dira. Etxeak enplegatzaile gisa adarra da urtetik urtera igoera handienak izan dituenak (209 gehiago).

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 74,0 izan dira urtarrilean. Mugagabeek -% 1,3 egin dute behera urtetik urtera. 7.836 pertsona kontratatu dira, % 3,1 gutxiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,34 kontratu.

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

Urtarrila	199.296 pertsona
	% 1,3 ▼
Zerbitzuak	% 1,3 ▼
Eraikuntza	% 1,7 ▼
Industria	% 0,8 ▼
Lehenengo Sektorea	% 2,6 ▲

Benchmarking-a

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 1,3 ▼
G-5	% 0,5 ▼
G-3	% 0,0 =

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Urtarrila	10.530 pertsona
	% 5,8 ▼
Emakumeak	% 3,9 ▼
Gizonak	% 8,2 ▼
Lehenengo Sektorea	% 40,0 ▼
Industria	% 9,9 ▼
Eraikuntza	% 2,9 ▲
Zerbitzuak	% 5,9 ▼
Kontratututako pertsonak	% 3,1 ▼

COMERCIO

Txikizkako merkataritza

Bizkaiko Txikizkako merkataritzaren sektoreak urte arteko % 2,6ko hazkundea izan du salmentetan laugarren hiruhilekoan. Erregai-zerbitzuguneetan automobilgintzarako egindako erregaiaren salmenta kontuan izan gabe, salmentek % 2,5 egin dute gora.

Aurreko hiruhilabetearekin alderatuta, % 0,5 igo dira salmentak (urtaro efektua kendutako datuetan).

Aztertutako sektore guztietan hazi dira urte arteko salmentak: automobilgintzarako erregaiaren salmentak izan dira igoera handiena izan dutenak (% 7,3); elikagaien salmentak eta gainerako produktuenak % 2,6 eta % 2,4 igo dira, hurrenez hurren.

Bizkaiko txikizkako merkataritzako sektoreko landunak % 1,4 igo dira iazko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

EAEn salmentek % 3,7 egin dute gora. Lurraldeka ere gora egin dute: % 6,3 Araban eta % 4,1 Gipuzkoan.

2025. urteko balantzea. Urte osoan, txikizkako merkataritzako salmentek % 2,9ko gorakada izan dute aurreko urtearekin alderatuta eta % 2,7ko gorakada zerbitzuguneak kenduta.

Automobilgintzarako erregaiaren salmentek gora egin dute (% 7,7), baita elikagaien (% 2,8) eta gainerako produktuen salmentek (% 2,7) ere.

Landunen kopurua % 1,4 igo da 2025. urtean.

Lurraldeka, Txikizkako salmentek urterik urte gora egin dute Araban (% 5,5) eta Gipuzkoan (% 3,4). EAEn, orokorrean, % 3,5 igo dira urtetik urtera.

Saltoki handiak eta elikagaien kateak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, urtarilean % 2,4 egin dute gora urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 0,1 murriztu dira salmentak.

Elikagaien salmentek % 4,0 egin dute gora 2025eko urtarrilarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentak mantendu egin dira.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko -% 0,6ko atzerakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Araban (% 5,3), eta Gipuzkoan (% 1,3). EAEn, orokorrean, % 2,5 egin dute gora.

Txikizkako merkataritza. Bizkaia

Urte artekoa Δ

IV. hiruhilekoa	126,2 adierazle orokorra
	% 2,6 ▲
- Elikadura	% 2,6 ▲
- Gainerako produktuak	% 2,4 ▲
- Automobilgintzarako erregaia	% 7,3 ▲
Zerbitzugunerik gabe	% 2,5 ▲
Lanean ari diren langileak	% 1,4 ▲

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Urtarrila	105,8
Salmenten indizea	% 2,4 ▲
- Elikadura	% 4,0 ▲
- Gainerako produktuak	% 0,0 =
Lanean ari diren langileak	% 0,6 ▼

EKONOMIA

Beste zerbitzu batzuen salmentak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, % 1,4 igo dira laugarren hiru hilekoan. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 1,3koa izan da.

Jarduera-adarren arabera, laugarren hiru hilekoan Informazioa eta komunikazioen adarra bakarrik jaitsi da, -% 3,7. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek % 6,4 egin dute gora, ostalaritzak % 1,8 eta administrazio-jarduerak % 1,0. Garraioaren eta biltegiatzearen salmentak mantendu egin dira.

Landunak % 1,1 igo dira urtetik urtera.

Araban beste zerbitzuen salmenten indizeak % 5,3 egin du gora, Gipuzkoan % 0,9 eta EAEn % 2,9.

TURISMOA

Bilboko **hotel-establezimenduetan** 129.969 ostatu-gau erregistratu dira urtarrian, hau da, % 8,0ko hazkundea egon da urtetik urtera (9.604 ostatu-gau gehiago).

Bidaia-ien sarrerak ere gora egin du, % 7,9. Estatuko bidaia-ien presentziak gora egin du urte artean (% 2,6), eta urtarrian hirira egindako bisitarien % 63,2 izan dira. Gainerako % 36,8 atzeritarrak dira, aurreko urteko hilabete berean Bilbon ostatu hartu zutenak baino % 18,3 gehiago.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaia-ri guztien artean, Madrilgo Erkidegokoak dira nagusi (% 22,4), ondoren, EAekoak (% 19,5), Kataluniakoak (% 11,1) eta Gaztela eta Leongoak (% 6,8). Atzerriko bidaia-iririk ugariak Frantziakoak izan dira (% 13,5), gero Italiakoak (% 9,9), Portugalgoak (% 8,9), eta AEBkoak (% 7,0).

Bidaia-ien batez besteko egonaldia 1,82 gaudikoa da, iazko urtarrian bezalaxe.

Hotel establezimenduek emandako errentagarritasun datuen arabera, urtetik urtera batzuek tarifak gora egin du, 82 euroraino, eta behera, berri, gela eskuragarriko diru-sarrerak (40,2 euro).

Merkatu-zerbitzuen salmentak Bizkaian

Urte artekoa Δ

IV. hiru hilekoa	135,5
Salmenten indizea	% 1,4 ▲
Lanean ari diren langileak	% 1,1 ▲

Establezimenduak (hotelak eta apartamentuak)

Urte artekoa Δ

Urtarrila	
Ostatu-gauak, guztizkoak	151.858 ostatu-gauak % 11,2 ▲
Sarrerak, guztira	79.121 sarrerak % 7,3 ▲
Egonaldia, batez beste	1,92 ostatu-gau/ bidaia-iriko

Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

Urtarrila	
Ostatu-gauak	129.969 ostatu-gauak % 8,0 ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 0,8 ▼
Gainerako hotelak eta pentsioak	% 36,5 ▲
Bidaia-ien sarrerak	71.405 sarrerak % 7,9 ▲
Espainiakoak	% 2,6 ▲
Atzeritarrak	% 18,3 ▲
Egonaldia, batez beste	1,82 ostatu-gau/ bidaia-iriko % 0,0 =

Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Urte artekoa Δ

Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	% 1,5 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 1,8 ▼

Apartamentu turistikoak 7.716 sarrera erregistratu dituzte guztira urtarrian, hau da, % 2,8 gehiago eta 21.889 gaualdi gehiago, eta 2025eko urtarrian baino % 35,0 gehiago.

Oro har, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta, urtarrian 79.121 sarrera eta 151.858 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera +% 7,3 eta +% 11,2, hurrenez hurren).

Benchmarking. Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera negatiboa izan da, -% 2,2 jaitsi da urte batetik bestera. Iruñean % 28,5 igo dira eta jaitsi, ordea, Gasteizen (-% 4,8) eta Donostian (-% 9,4).

EAE osoan -% 0,1 jaitsi dira aurreko urteko urtarriaren aldean. Lurraldeei dagokienez, Bizkaian bakarrik hazi dira (+% 8,5). Gipuzkoan -% 7,8 jaitsi dira, eta -% 2,6 Araban.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 6,1eko gorakada izan dute. Taldeko hiriburu guztietan izan da igoera. Zaragozan izan du igoerarik handiena: % 13,6.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 415.349 bidaiari izan ditu urtarrian (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 13,5 eta 49.405 bidaiari gehiago. Emaizta horiekin, gainera, urtarriko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zenetik.

Merkataritza-operazioetan, igo egin da hegaldi nazionalako bidaiarien kopurua (19.455 bidaiari gehiago, % 8,3), baita nazioartekoetako ere (29.630 bidaiari gehiago, % 22,6).

Hilean operatutako hegaldiek gora egin dute, eta, iritsieren eta irteeren artean, 3.241era iritsi dira. Eta jaitsi egin dira, aldiz, haietan garraiatutako salgaiak (-%15,2).

Benchmarking-a. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 3,9ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Aireportuen artean Sevillakoa izan da igoera handiena izan duena (% 9,4), eta Bartzelonakoa, berriz, txikiena izan duena (% 3,0).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, urtetik urtera % 5,8 igo da. Gora egin du Gasteizen (% 3,9), Donostian (% 3,7) eta Iruñean (% 11,5).

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Urtarrila

Ostatu-gauak	21.889 ostatu-gauak
	% 35,0 ▲
Bidaiarien sarrerak	7.716 sarrerak
	% 2,8 ▲

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitatez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalen eta ohikoan aldi baterako ostalua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe".
198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituen.
(Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

Benchmarking-a

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 8,0 ▲
G-5	% 6,1 ▲
G-3	% 2,2 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Urtarrila	415.349 bidaiari
	% 13,5 ▲
Espainiakoak	% 8,3 ▲
Nazioartekoak	% 22,6 ▲
Salgaiak (kg)	% 15,2 ▼
Hegaldiak	% 9,0 ▲

Benchmarking-a

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 13,5 ▲
G-5	% 3,9 ▲
G-3	% 5,8 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko garraioa

Bilboko Portuak 2,2 milioi tonako trafikoa izan zuen urtarrilean, hau da, -% 9,4 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan urtarrilean kudeatu diren salgaien % 61,7 izan da, eta -% 9,7ko jaitsiera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 0,4 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra -% 13,5 jaitsi da.

Urtarrilean ez da itsas-bidaletako jarduerarik erregistratu.

Itsasoko garraioa Urtarrila

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	2,2 milioi tona.
	% 9,4 ▼
Bidaia-erien garraioa	3.843 bidaia-ari
	% 12,0 ▼
Gurutzealdiko bidaia-ariak (kop.)	0 gurutzealdiko bidaia-ari
	=

ADIERAZLEEN KOADROA


	Azken datua	Urte arteko aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.186	1,5*	2026ko urtarrila
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	199.296	-1,3*	2026ko urtarrila
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	10.530	-5,8	2026ko urtarrila
Biztanleria aktiboa (milaka)	178,1	1,3*	2025eko IV. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	156,6	-4,9*	2025eko IV. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	21,5	92,0*	2025eko IV. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	12,08	5,72 pp.*	2025eko IV. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	100,9	-0,5*	2026ko urtarrila
Afiliatuak**	19.452	-0,5*	2026ko urtarrila
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	126,2	2,6	2025eko IV. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	105,8	2,4	2026ko urtarrila
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaerien sarrerak	71.405	7,9	2026ko urtarrila
Ostatu-gauak	129.969	8,0	2026ko urtarrila
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaariak)	1,82	0,0	2026ko urtarrila
Hotelen okupazio maila (%)	40,5	-1,1 p.p.	2026ko urtarrila
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	40,2	-1,8	2026ko urtarrila
Apartamentu turistikoak			
Bidaerien sarrerak	7.716	2,8	2026ko urtarrila
Ostatu-gauak	21.889	35	2026ko urtarrila
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,83	7,0	2026ko urtarrila
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	108,5	0,7*	2025eko III. HH
Industria-produkzioa (indizea)**	93,3	-1,8	2025eko abendua
Merkataritza-sozietate berriak	984	13,9	2025
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	135,5	1,4	2025eko IV. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	5.150,6	8,4*	2025eko III. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m ²)	3.340,6	-2,9*	2025eko III. HH
Etxebizitzen alokairuaren prezioa (€/hilabete)	872,5	-6,6*	2025eko II. HH
Garraioa			
Bidaerien aireko garraioa (kop.)	415.349	13,5	2026ko urtarrila
Hegaldiak	3.241	9,0	2026ko urtarrila
Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	2,2	-9,4	2026ko urtarrila

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaiari dagokiona.


Iturriak: Guk egin, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritzak, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, Axesor, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatuak




Txikizkako merkataritza



Aireportuko bidaiariak



Portuko trafikoa



Saltoki handiak eta elikagaien kateak

